

BEGIKOAK JOXEAN MUÑOZ

Xuxen

XUXEN» idatzi dut eta ez dakit zuzen idatzi dudan. Hiztegiari begiratu dut, ordenagailuan, alegia. Izan ere *Xuxen* izeneko tresna informatikoa eskuratu dut. *Euskaldunon Egunkaria*-k eman du opari, orain pare bat aste. Ordenagailuan idazten ari zarenean oker idatzitako hitza azpimarratzen dizu eta, nahi izanez gero, zuzendu. Edo zuzenketarako aukerak eman. Euskarazkoak, jakina. Ospatu egin nahi nuke hemen.

Makinaz txukun idazten ikasi ez genuen baldarrok izugarri estimatzen ditugu honelako opariak. Eta hizkuntza kontuetan ere baldar gabiltzanok, are gehiago. Hibaia hatxea jartzen ikasi eta gero ahaztu egin beharrak etsi egin gintuen, eta haserretu, ez genuelako ulertzen zergatik «hertzainak» «ertzain» bihurtu behar zuten, PNVri kapritxoa emateko, eta ez didaten hibaia hatxearekin utzi, zubi eta guzti, alegia. Baina ez dut nire utzikeria zurituko. Adiskide min batek esaten zidan behin, «artikulua ondo, baina hibaia hatxe gabe duk», eta axolagabea nintzela, «Armaniz jantzita joan eta koipe orbana harro erakustea» iruditzen zitzaizola, alegia. Arrazoi izaten du adiskide horrek. Zuzentzea erabaki dut.

Telebistako iragarkietan bezala, kamerari begira jarri eta nire disko magikoa erakusten dut: *Xuxen*. EHUko Ixa izeneko taldeak egin du. Ixa: argitu egin behar den inkognitarien izena, izen propioak giltzapean gordetzen dituen izen zehaztugabea. X.

Zuzen

Gaztelaniako tresna zuzentzailea ordenagailuak berak dakar eta asaldagarri gertatzen da euskaraz ari zarenean. Dena dago gaizki, testu (ia guztia) geratzen zaizu gorritz itsustua, baita ondo zegoena ere. «Axular» gorritz azpimarratzen dizu ordenagailuak, oker dagoela salatuz eta «El Cid» onartzen dizu arazorik gabe. Eta «eta».

Orain alderantziz gertatzen zait. Orain «El Cid» azaltzen da gorritz, eta Axular onartzen dit ordenagailuak. Lasaigarria izan da, orain jolas egin dezaket. Hautatu egin dezaket. Bestalde, biak nahasian aipatzeko ohitura zitala dugunontzat, jolas polita da traste zuzentzailearentzat zer eta nor den zuzena ikustea. Jolasa ordea, denbora pasa. Eta nik *Xuxen* lanerako behar dut, lanerako ari naiz erabiltzen.

Ixa

Horregatik idatzi dut hasieran «xuxen», hiztegiak «zuzen» jarriraziko zidala pentsatuz. Horretaraino naiz ezjakina. Pena pittin bat eman dit zuzena zela ikusteak. «Hauek kapaz dituk» esaten nion nire buruari, «hiztegiak onartzen ez duen izena aukeratzeko». Sanoak baitira, ezagutzen ditudanak, umoretsuak, bere buruari barre egiteko gai, jende osasuntsua, alegia. Ikur piratak atsegin dituen jendea. Lanean kiskaltzen dira pantaila baten aurrean baina munduan bizi dira, mekanografian traketsak garenokin, ortografian baldarrak garenokin batera.

Esker ona zor diet, beraz, ni bezalakoekin akordatu direlako. Hemendik aurrera ni neu naiz, eta ez nire atzapar motelak, ez nire ortografia etengabe kadukatua, hemen azalduko diren trakeskerien errudun. Aitzakiarik gabe utzi naute Ixakoek.



Ixa taldeko Urkia eta Alegria.